

2001-02-11
aurkibidea**EUSKAL HERRIA** 8
125.000 lagun ENArekin

Bai Euskal Herriari plataformak 125.221 sinadura bildu ditu, ENA Euskal Nortasun Agiria ofizializatzearen alde.

EUSKAL HERRIA 12
Bilboko manifestazioa

3.000 manifestari bildu ziren atzo Bilbon, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria ere han izan zen.

EUSKAL HERRIA 14-15
Udalerrri euskaldunak

UEMA euskaraz lan egitea erabaki duten udalerrien ordenantzen aurka erabaki ugari hartu ditu Espainiako Auzitegi Gorenak. Alegiako Udalak jaso du azken epaia aste honetan.

EUSKAL HERRIA 16
Gripe gutxi aurten

Gripe kasu gutxi dago aurten EAEn. Osakidetzaren arabera, horren arrazoiak dira txertoaren eraginkortasuna eta eguraldi epela.

NAZIOARTEKOA 22
EEBBetako urpeko nuklearraren ezbeharra

EEBBetako urpeko nuklear batek istripua izan du Hawaiiuko uretan: ur gainera igo, eta Japoniako arrantzontzi bat jo du. Gutxienez bederatzi lagun desagertu dira.

KULTURA 46
Araguesentzat domina

Tomas Aragues musikagileak jaso du Txistulari Elkartearen Urrezko Domina, berea delako txistu eta orkestrarako kontzertu bakarra.

Egunkaria 3.161. zenbakia**Dhorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Iñaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoia Sanz**Egoitza Nagusia:** Gudariaren etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakziorako faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**Batzorde Parekidea:** 72664 E. Lege Gordailua. SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK - Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzidorra) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pannecau 14, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593675 Faxa: 559257511**balkoia**

Martxelo Otamendi

Noiz arteko iraungitze data?

Sutan da Aznarren gobernu, adierazle guztien arabera, Espainiako Entzutegi Nazionalako Arlo Penaleko laugarren sekzioak ostegunean Xakikoekin hartu zuen erabakiagatik. *ETAren Kanpo Arazoetako ministerioa* deitu zioten komunikabide askok Xakiri operazioa egin zutenean.

Sutan daude Mayor Oreja-Garzon bikotea euskal abertzaletasun matxinoa zigortu eta kriminalizatzeko tresna paregabea dela uste dutenak. Ez da aurreneko aldia laugarren sekzio horrek Garzonen auto bat indargabetzen duena. Gertutik segitu beharko da, beraz, sekzio horrekin, eta osatzen duten epaileekin, Entzutegi Nazionalak berak eta Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak etorkizunean hartzen duten jarrera. Alferrik ari baitira Mayor Oreja eta Garzon lanean, gero etxe berean beste epaile batzuek, autoetako akuzazioak erlatibizatuz, kamusten badute ezker abertzalearen aurkako gurutza.

Nazioarteko lana zigortu

Xakiren aurkako operazioak esanahi argia zeukan: Espainiak eta Frantziak Euskal Herriarekin daukaten aferaren berri nazioartekoan zabaltzen duenak, zigorra dauka zain. Ez dezagun ahaztu Garzonek, egin zuen prozesamendu autoan, «atzerrian» autodeterminazioaren aldeko hitzaldiak ematea delitutzat jo zuela. Badaki aurrerant-

GIL ROBLES**Espainiako Ararteko zela egin ez zuena ez du egingo Europako Kontseiluko delako****HAUTESKUNDEAK****Ibarretxeren hiru konpromisoek noiz arte iraun behar dute? Hauteskunde biharamuna arte?**

tzean horrelako uretan sartzen denak nolako olatuak topatuko dituen.

Espainiako Gobernuarentzat, noiz arte ez, oso garrantzitsua da nazioartekoan berak bakarrik ematea Euskal Herrian gertatzen denaren berria. Berak izan nahi du berriemailea eskusibitatean. Horregatik jo zuen, eta joko du, zeregin horietan dabilzanean aurka. Baina, era berean, ohartu behar dugu gatazkak nazioartean presentziarik ez badu, oso zaila izango duela irteera justiziazkoa. Urteetan dirauten gatazka hauek, prozesuko uneren batean, nazioartean esku-hartzea ezinbesteko dute. Besterik da nolako egitekoa dagokion nazioarteari gatazka honen konponbidean. Noiz? Nork?

Nola? Zertarako?... galderak egitea guztiz zilegi da.

Aurrekari txarra izan dugu asteon, ordea. Alvaro Gil Robles Europako Kontseiluko Giza Eskubideen batzordeko komisarioaren bisita izan dugu egunotan, eta arrazoi dute diotenen azeri hobea ezin zitekeela aukeratu oitategian sartzeko. Gil Robles Espainiako Arartekoa izan da aurretik, eta inork baino hobeto daki zer gertatzen den Euskal Herrian eta Espainian. Ardua hori zeukan garaian ez zuen ezer asko egin bere esku zeuden zuzenketak egiteko.

Ibarretxeren hirugarrena

Hiru konpromiso iragarri zituen irailean Ibarretxe lehendakariak (etikoa, demokratikoa eta elkarriketaren aldekoa), eta datorren larunbatean osatuko du hirugarrena Donostian. Ez da erraz igartzea hiru konpromiso horien atzean zer dagoen. Zer iraungitze data daukate konpromiso horien loturek? Hauteskunde biharamuna? Hau da, Ibarretxeren ekimenekin bat egin ez duten alderdiek, hauteskundeen emaitzak edozein direla ere, itxita daukate Gasteizko gobernu berria osatzeko ateak? Edo «governabidearen izenean» Ibarretxeren ekimenei bizkarra eman dieten sozialistei, adibide bat jartzeagatik, zabaldu egingo dizkiete parez pare, jeltzale *pisudunek* egunotan egindako adierazpenetatik ondoriozta litekeenez?

mattin